

# Landa-gida eguneratu da txerri-izurri afrikarra egon daitekeelakoan

**MAPAk duela gutxi argitaratu du txerri-ustiategietan txerri-izurri afrikarraren susmoa izanez gero jarduteko gidaren eguneraketa.**

MAParen Osasun, Higiene eta Trazabilitateko Zuzendariordetza Nagusiak dokumentu praktikoa hori eguneratu du. Dokumentua baliagarria da albaitaritza-zerbitzu ofizialentzako landa-gida gisa; izan ere, zerbitzuok arduratzen dira ustiapenak bisitatzeaz baldin eta gaixotasun hori egoteko susmoa badago edo hala baieztatzen bada.

Hala ere, aintzat hartu behar da txerri-izurri afrikarraren aurka borrokatzeko Eragiketen Eskuliburu Praktikoa, modu xehatuan deskribatzen baititu hartu beharreko neurriak, baita erantzunaren parte diren beste neurri asko ere. Albaitaritza Zerbitzu Ofizialek jarri behar dituzte martxan neurri horiek Espainian txerri-izurri afrikarraren fokuren bat dagoela uste badute edo hala baieztatzen bada.

Halaber, MAPAk berak [txerri-izurri afrikarraren egoerari buruzko azken txostenean](#) honako hau nabarmentzen du:

- Azken urteotan aurreko urteetako joerari jarraitu dio, eta udan kasu-kopurua nabarmen igotzen da.
- Gaixotasunaren hedapena basurdeen bidez, fokuak jakinarazi baitira ekialdeko Europan (Errumanian, Bulgarian, Hungarian, Polonian...).
- Lehenengo aldiz baieztatu dira kasuak etxeko txerrietan Grezian, Alemanian eta Italian.

Egungo egoera epidemiologikoa, Europako Batzordearen [ADIS azken txostenaren](#) arabera, honako hau da 2022aren hasieratik.

- Etxeko txerrietan 478 foku guztira, eta Italia da herrialderik nabarmenena hurbiltasunagatik:
- Basurdeetan, 5.990 kasu hauteman dira:

---

## Hegazti-gripearen bi foku aitortu dira Euskadin

**H5N1 HGOP hauteman da Gipuzkoan aurkitutako bi sai arreetan**

Bi kasu isolatu dira, gaixotasuna garraiatzeko gaitasun handirik ez duen espezie batean

Gipuzkoako Foru Aldundiko Basozainek bildutako putreak maiatzaren hasieran aurkitu zituzten Azpeitia eta Beasain udalerrien artean, eta maiatzaren 14an Aiako Harrian (Irun), hurrenez hurren.

Aurkikuntza hori hegaztien migrazio-aldian egiten den zaintzari esker egin da, Europa osoan fokuak agertu izanaren ondorioz. 2022ko maiatzaren 16ean, HGOPren 4.669 kasu aitortu dira Europako 36 herrialdetan, batez ere H5N1 anduia. Kasu horietako 2.207 etxeko hegaztienak izan dira, 2.373 hegazti basatienak eta 89 gatibu dauden hegaztienak.

Abereen osasunaren arloko osasun-agintariek, Euskadiko hegazti-sektorearekin batera, honako neurri hauek hartzea adostu dute:

- Animalien egoera klinikoa egiaztatzea, infekzioaren hautemate goiztiarrerako.
- Hegazti-ustiategietan biosegurtasun-neurriak indartzea, bereziki hegazti basatiekin harremanetan jartzea saihesteko neurriak. Besteak beste, etxeko hegaztiak konfinatzea gomendatu da.

Neurri horiek autokontsumorako ustiategiei ere aplikatu behar zaizkie, birusa zoonotikoa delako, nahiz eta **transmisio-arriskua txikia izan**.

**Bestalde, gogorarazten da hegaztiak oinarri dituzten okela, arrautza, foie gras eta zeinahi elikagaik, kutsatuta egongo balira ere, ez luketela arriskurik ekarriko pertsonentzat.**

Hurrengo estekan hegazti gripearekiko informazio guztia aurkituko duzu:

---

## **[Txosten berria: animalien ongizate-maila baserrietan](#)**

**EEk txosten bat argitaratu du; bertan, abeltzaintza-ustiategietan animalien ongizateari buruz egindako kontrol ofizialen azken emaitzak aztertzen dira eta ongizatea neurtzeko ezarritako sistemetako batzuk deskribatzen dira.**

Batzordeak kontrol ofizialei buruz egindako azken ikuskaritzetako emaitzen arabera, zailtasunak daude ustiategietan animalien ongizatearen arloan egindako aurrerapenen jarraipenerako sistema eraginkorrak ezartzeko. Izan ere, ez dago ongizatea neurtzeko mundu osoan onartutako adierazleen multzo bakarra.

Datuek legezko betekizunak betetzen diren ala ez adierazten dute, baina ez dute aztertzen arazoaren garrantzia eta ez dute animalien benetako egoerari buruzko informazio nahikorik ematen.

Txostenean, ustiategiko baliabideen hornikuntzan baino gehiago (adibidez, kaiolatutako animaliak, mastekagarriak) animalia-egoera orokorrean oinarritutako adierazleak erabiltzen hasi diren (Italia, txerrietan buztanak moztea eta Holanda, oilo erruleen egoera) zenbait estatu kidetan ezarritako sistemetako batzuk aipatzen dira.

Txostenak ondorioztatzen du adierazle espezifiko eta egokiak ezarri behar direla animalien ongizateari buruzko EBren legeriaren egungo berrikuspenean.

---

## [Albaitaritzako sendagaiei buruzko infografia berria](#)

**Elikak albaitaritzako sendagaiari buruzko 2019/6 Erregelamendu berriaren aldaketa garrantzitsuenak jasotzen dituen infografia bat egin du, errazago ulertzeko.**

Joan den urtarrilaren 28an indarrean sartu zela argitaratu ondoren, araudi berri honen berri eman genuen [albiste hau](#) argitaratzean. Orain, arau honen aldaketa garrantzitsuenak laburbiltzen dituen infografia hau argitaratu du ELIKAK:

**Sektoreko profesionalen eskura jartzen dugu infografia, inprimatzeko moduan:**

---

## [Behi-tuberkulosirik gabeko Euskadi](#)

**Europako Batzordeak berriki deklaratu du Euskadi behi-tuberkulosirik gabeko eskualdetzat.**

Agintariak Batzordeari aurkeztutako informazioaren arabera, EAEn Mycobacterium tuberculosis (CMTB) konplexuaren bidezko infekziorako gaixotasunik ezaren estatusa aitortzeko baldintzak betetzen dira.

CMTB hiru patogenok osatzen dute: M. caprae, M. tuberculosis eta Mycobacterium bovis. Azken horrek behi-tuberkulosia eragiten du; zoonosi hori oraindik ere kezkarria da garapen-bidean dauden herrialdeetan.

**EAEn kasuan, otsailaren 20az geroztik agertzen da eremu libre gisa 2021/620 (EB) Betearazpen Erregelamenduan (II. eranskina, I. zatia).**

Horrek arrakasta dakar **administrazio publikoek eta abeltzaintza-sektoreak** urtetan egindako ahaleginaren ondoren, gaixotasuna desagerrarazteko **programan ezarritako abeltzaintza-saneamenduko kanpainen bidez.**

---

## [Entzefalopatiei buruzko 2021eko urteko](#)

# txostena

## **EFSAren zientzia-sarea arduratu da Entzefalopatia Espongiforme Transmitigarri (EETak) buruzko azterlana egiteaz eta urteko txostena argitaratu berri du.**

Aurreko urteetan bezala, EFSA sarea osatzen duten gainerako kideekin (estatu kideak eta beste herrialde batzuk, EE eta OIE) elkartu da emaitzak partekatu eta EBn EETek duten egoerari buruzko iritzia osatzeko.

Eztabaidatutako gaiak [2020](#)koen ildo berari jarraitu zioten eta honako hauek hartu zituzten barne:

- **CWD (oreinetan kakexia eragiten duen gaixotasuna):**
  - Suediak zaintza intentsiboko programaren emaitzak aurkeztu zituen eta altzeetan hautemandako kasu positiboak buruzko informazioa partekatu zuen. Programan parte hartzeko ehiztarien konpromisoa azpimarratu zuten.
  - Norvegiak azken 5 urteetan ezarritako kontrol-neurrien berrikuspena egin zuen.
- **[Pentsuen debekua bertan behera uzteari buruzko arriskuen ebaluazioaren emaitzak:](#)**
  - Azpimarratu zuten, edozein kutsadura gurutzatuz gain, oso mugatua izan daitekeela noizbehinkako/bat-bateko EET posible bat txerrietan birziklatzea elikakatearen bidez. Eta honako hau ondorioztatu zuten: ekoizpen-katean espezieen araberako banaketa efektiboak (kontrol-neurriekin eta trazabilitatearekin batera) mugatu egiten du EETak hedatzea.
  - Txerriak eta eskortako hegaztiak elikatzeak intsektuak erabiltzeari buruz eztabaidatu zuten. Azpimarratu zuten intsektuak hazten diren substratuak bete egin behar dituela animalien elikadurari buruzko erregelamenduzko betekizunak. Britainia Handian giza apendizetan **proteina prioniko anormalak** duen prebalentziari buruzko ikuspegi historikoa eman zen eta emaitzak aurkeztu ziren.
- EFSAk, ikarari (scrapiea) buruz ondorioztatu zuen, 2 urteko ikerketaren ondoren eta zaintza intentsiboari buruzko datu zientifikoak baloratu ondoren, ez dagoela froga berririk baieztatzeko **ikara atipikoa** animalien artean transmiti daitekeela baldintza naturaletan, eta gaixotasun kutsakorra baino ez-kutsakorra dela uste izateko aukera handiagoa dago.
- **Behien entzefalopatia espongiformeari (BSE) dagokionez**, OIEk jakinarazi zuen gaur egun 56 herrialdek eta 5 eremuk dutela BSEren arrisku-estatus ofiziala. Bi kide berrik (Kanadak eta Irlandak) ESBren arrisku hutsaleko estatusa duten herrialdeetat hartu ziren.

---

## Hegazti eta untxien lagin baten post mortem ikuskapenerako gida

AESANek berriki orientazio-gida bat argitaratu du, etxeko hegazti eta lagomorfoen lagin adierazgarri baten post mortem ikuskapenari buruzko kontrol ofizialeko zerbitzuentzat.

[2012ko EFSaren txosten](#) baten arabera: *post mortem* ikuskapenerako sistema tradizionala **ez da gai osasun publikorako kezkagarrienak diren arrisku biologikoak antzemateko**. Hala ere, **baliozko sistematzat hartzen zen gaixotasunak antzeman eta animalien ongizatea ebaluatzeko**.

Estatu mailan, aintzat hartzen da [340/2014 Errege Dekretua](#); horrek **kortako hegaztien eta lagomorfoen haragi freskoaren kontrol ofizialetan laguntza** eskaintzeari buruzko xedapenak ezartzen ditu. Gainera, horrek jada jaso egiten zituen **2019/67 (EB) Betearazpen Erregelamenduan** zein **2017/625 (EB) Betearazpen Erregelamenduan** ezarritako baldintzak, gizakion kontsumorako animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialei buruzkoak.

**Kontroletarako laguntzari** dagokionez, kortako hegazti eta lagomorfoen *post mortem* ikuskapena egin bitartean, **egun indarrean dagoen araudiak** honako hau adierazten du:

1. Albaitari Ofizialak egin dezala
2. Albaitari Ofizialaren erantzukizunpeko Laguntzaile Ofizialak egin dezala
3. Hiltegiko langileek egin dezatela, zenbait baldintza beteta
4. **Lagin adierazgarri baten *post mortem* ikuskapena**

**Gidan honako azken puntu hau garatuko da**; hori aipatutako Errege Dekretuak ezarritako baldintzen salbuespena baino ez da, 2012ko EFSaren txostenean oinarritutakoa: **agintaritza eskudunek erabaki dezakete egun berean hildako, jatorri eta ustiategi bereko abere-talde bakoitzeko hegazti eta untzien lagin adierazgarri bakarra *post mortem* ikuskatzea**.

AESANek adierazi duenez, **hegazti eta lagomorfoen lagin adierazgarri bat *post mortem* ikuskatzean**, haragi freskoaren **kontrol ofizialen sistemaren eraginkortasuna hobetzen** da; halaber, eskuragarri dagoen informazio publikoarekin, horrek **kanal guztiak ikuskatzen** dituen ikuskapen-sistema **klasikoarekiko baliokideak diren bermeak** eskaintzen ditu.

---

## **ITxostena: entzefalopatiem emaitzak**

MAPAk txosten bat argitaratu berri du, eta, bertan, estatu mailan entzefalopatia espongiforme transmitigarrien egungo egoera aztertzen du.

BSEri dagokionez:

- **62.565 behi aztertu dira, eta horietatik % 98,31 hildako animaliak dira edo sakrifikatu egin dira, ez kontsumitzeko.**
- **799 foku**
- **1 animaliak BSE atipikoan positiboa eman du.**

Ikarari (scrapie) dagokionez:

- **816 animalia aztertu dira, eta pisu handiena duena behietan hautemandako azpipopulazio bera da: hildako animaliak edo premiaz hil direnak.**
- **20 foku; horietatik 13 andui atipikoak dira behien artean eta 7 klasikoak ahuntzen**

artean.

- **288 animaliak positibo eman dute.**

Estatu mailako egoera epidemiologikoari buruzko txosten horretatik honako **ondorio** hauek ateratzen dira:

1. **ESBaren kasuak etengabe murrizten ari dira. 2007an** izan zuen beherakadarik handiena.
2. **Ikararen kasuen kopuruak ez du epidemiologia aldetik beherakada esanguratsurik adierazten.**
3. **ESBa duten animalien batez besteko adinak gora egin duela** ikusten da (6.4 urtetik 16.4 urtera).
4. **Hautemandako ESBaren andui atipikoen kasuek behera egin dute etengabe eta kasu horiek adineko animalietan hauteman dira: hautemandako kasuak ez dute zerikusirik elikadura-jatorriarekin (animalia-jatorriko irin-pentsuak).**
5. **Aipatutako aldeko datuek adierazten dute animalien entzefalopatia espongiforme transmitigarriak zaindu eta kontrolatzeko osoko programa koordinatua ezarrita zenetik hartu diren kontrol-neurriak eraginkorrak direla, eta iradokitzen dute hautemandako ESB kasuen jatorria ez dela elikadura. Bestalde, ikara genotipatzea da talde bateko animalia sentikorrenak hautemateko neurri eraginkorrena.**

Hori dela eta, EFSAk gaiari buruz emandako ezagutza zientifiko berriei erantzuteko Europako Batzordeak legeak aldatzeko egindako ondoz ondoko egokitzapenen ondoren, **OIEk aitortu du Espainiak, 2016az geroztik, BSEaren aurrean arrisku hutsaleko egoera duela**, eta ordutik berriro egin da egoera hori.

Para más información:

---

## **Albaitaritzako sendagaiak kontrolatzeko programaren emaitzak**

MAPAre menpeko Animalien Osasun eta Higienarako eta Trazabilitaterako Zuzendariordetza Nagusiak berriki argitaratu du albaitaritzako sendagaien banaketa, preskripzio eta ematearen kontrol ofiziala egiteko programa nazionalaren baitan egindako kontrol ofizialen emaitzak biltzen dituen urteko txostena.

**COVID-19aren** ondoriozko osasun-egoera dela bide, **murriztu egin da kontrolatutako establezimenduen** kopurua esparru guztietan. Alabaina, mantendu egin da inspektio-maiztasuna ia sektore guztietan.

Horri horrela izanik ere, oro har, **handitu egin da kontrol-unibertso** hau:

- **Xehekako saltegiak: % 14**
- **Abeltzaintzako entitate edo taldeak: % 12**
- **Albaitari profesionalak: % 73**

Jarraian, kontrol-esparruetan jasotako **emaitzen joerak** daude azalduta:

1. **Handizkako biltegiak: murriztu** egin da **ez-betetzeak** hauteman dituzten kontrolen kopurua. Dena den, azpimarratu egin behar da 3 zehapen-espeditente ireki direla; izan ere, lehen aldia da 2012tik.
2. **Xehekako saltokiak:** handizkako merkatarien kasuan **bezala**, murriztu egin da ez-betetzeak hauteman dituzten kontrolen kopurua, baina zehapen-espeditente gehiago dago.
3. **Abeltzaintzako entitate edo taldeak: handitu** egin dira ez-betetzeak hauteman dituzten kontrolen eta zehapen-espeditenteen ehunekoak (% 26,51 eta % 10, hurrenez hurren).
4. **Albaitari kliniko profesionalak:** beste kontrol-programa batzuetan “**susmagarritzat**” jotako albaitariei egin zaizkie kontrol guztiak; hau da, **ez** zaie ikuskapenik egin beren **albaitaritzako botikina deklaratu** duten profesionalei. **Ez-betetzeak** hauteman dituzten kontrolen ehunekoa **nabarmen hazi da 2018tik hona** eta une honetan **% 63,41ean** Hala eta guztiz ere, **zehapen-espeditenteen ehunekoa** % 22tik % 8,79ra murriztu da **2020an**, eta 2011tik egon den ehunekorik txikiena da.
5. **Albaitaritzako sendagaien Internet bidezko salmenta**, derrigorrezko preskripziorik gabe: ez-betetzeek % 2 hartzen dute.
6. **Autotxertoak ekoizten dituzten laborategiak:** ez-betetze guztiek etiketekin izan dute zerikusia, eta ez da zehapen-espeditenterik ireki.

**Programaren helburuak** betetzeko, honako hauek **hobetzea gomendatzen da:**

- albaitaritzako sendagaiak banatzeko eta emateko **baimena duten establezimenduei** eskatzen zaizkien betekizunak (trazabilitateari arreta berezia jarrita)
- **albaitari profesionalak** albaitaritzako preskripzioak egiteko erabiltzen duten prozesua eta albaitaritzako sendagaiak edukitzeko bete behar dituzten betekizunak.

Horretarako, **Zuzendariordetzak azpimarratu du kontrolari (albaitaritzako sendagaien banaketa, preskripzioa eta ematea) modu ez hain zatituan heldu behar zaiola**, esparru ezberdinak barne hartuko dituzten zeharkako kontrolen bidez eta abeltzaintza-ustiategiak ere aintzat hartuta.

---

## **Entzefalopatia espongiforme transmitigarriak kontrolatzeko erregelamendu berria**

Europako Batzordeak **2021/1176 (EB) Erregelamendua** argitaratu du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **99/2001 (EE) Erregelamenduaren zenbait eranskin aldatzen dituen entzefalopatia espongiforme transmitigarri dagokienez.**

**Abuztuaren 8an indarrean jarriko den** erregelamendu horren berritasun nagusiak honako hauek dira:

- Ahuntz-azienden entzefalopatia espongiforme transmitigarri positiboek kasuak genotipatzeko beharra ezartzen du.

- Erresuma Batuarekin zerikusia duen hausnarkari txikien adina zehazteko aukera bat indargabetzen du.
- Dardara atipikoa izanez gero, indargabetu egiten ditu zaintza intentsiboko betebeharrak.
- Zehaztu gabeko arriskua duen herrialde bateko behi-, ardi- eta ahuntz-azienden produktu eratorrien inportazio-baldintzak bateratzen ditu, behien entzefalopatia espongiformeko arrisku kontrolatua duen herrialde batetik EBra inportatzen diren kasuetarako.

Neurri horiek erlaxatu egiten dituzte 2001etik indarrean dauden entzefalopatia espongiforme transmitigarrien kontrolak, eta entzefalopatia espongiforme transmitigarriak prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren emaitza onen ondorio dira.